



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 8a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-zerbitzuen zorroan sar ditzan emakume ezkongabe eta lesbianentzako ugalkortasun programak, haiek ama izateko daukaten eskubidea bermatuko dutenak. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Sodenaren eta entitate finantzarioen artean “Europako Inbertsio Bankua” lerroaren esparruan sinatutako hitzarmenak. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen gaineko tasa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eraturako errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista. Mozioa erretiratzea (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan Espainiako Gobernuak prestaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailetzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin. Mozioa erretiratzea (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Esako mazelaren eta urtegiaren mugimenduari eta Nafarroako Gobernuako segurtasun-txostenari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (8. or.).

—Galdera, jakitekoa zer jarrera hartuko duen Osasun Departamentuak koordainketaren aurrean, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano egin (8. or.).

- Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak ikusita Mediterránea de Catering enpresarekiko arazoek eta kexek oraindik ere badiraute, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (9. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurrekontu bideratuko duen Nafarroako Gobernuak 2014an garapenerako lankidetzara, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Kontuen Ganberak eginiko fiskalizazio-txostena, Nafarroako Zerga Ogasunaren Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Planari buruzkoa (2008-2012) (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2013ko uztailaren 1eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko 2. idatz-zatiari bi lerrokada gehitzeko zuzenketa. Artikulua honela geldituko litzateke:

“15.2. artikulua: Kanona ez bada borondatezko epean ordaintzen, premiamendu-bidea erabiltzen ahalko da haren ordainarazpenerako.

Kanona aurreko idatz-zatian aipatutako enpresa publikoaren bidez kobratzen bada zuzenean, premiamendu-bidearen kudeaketa Nafarroako Zerga Ogasunaren organoen bidez egingen da.

Kanona ur-hornitzaile diren entitateek jasotzen badute, premiamendu-bidearen kudeaketa entitate horiei aplikatzeko zaien diru-bilketako prozeduraren arabera egingen da”.

Zioak: Bi lerrokada gehitzen zaizkio 15.2 artikuluari.

Bigarren lerrokadaren bidez argitu egiten da, eta Foru Legean idatziz jasotzen, gaur egun jadanik gertatzen dena: ordaintzen ez duen bat baldin badu Nilsak, premiamendu-bidearen kudeaketa

Nafarroako Zerga Ogasunaren diru-bilketarako organoek egiten dute.

Hirugarren lerrokadan, ur-hornitzaile diren entitateen premiamendu-bideko ordainarazpenak arautzen dira: lerrokada horrek modu generikoan ezartzen duena da entitate horiei diru-bilketako zer prozedura zaien aplikatzeko, huraxe bera dela aplikatuko dena. Uneotan toki entitateak direnez, premiamendu-prozedura, oro har, entitate horiek erabili ohi dutena izanen da.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“16. artikulua.

1. Arau-hauste eta zehapenen arloan, Tributuei buruzko abenduaren 14koa 13/2000 Foru Lege Orokorrari eta bere garapen-arauetan xedatutako ari jarraituko zaio.

2. Aurreko artikulua aipagai duen enpresa publikoak kanona kudeatzeko eta likidatzeko gauzatutako egintzen kontra, tributu-betebeharra duenak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzten ahalko du, eta Nafarroako Gobernuak aztertu eta ebatzi beharko du erreklamazio hori, Tributuei buruzko abenduaren 14koa 13/2000 Foru Lege Orokorraren IV. tituluko VII. kapituluak duen 4. atalari eta horren garapen-arauei jarraikiz. .

3. Ur-hornitzaile diren entitateek kanona kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko gauzatutako egintzak entitate horiei dagokien araudiaren arabera aurkaratzen ahalko dira”.

Zioak: 16. artikulua orain duen edukia artikuluen 1. idatz-zati gisa geldituko da. Aldaketa bat egiten zaio; izan ere, arau-hausteen eta zehape-

nen arloan, teknikoagotzat eta zuzenagotzat jo da Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari egitea aipamena. Nafarroako tributu guztiek zehapen-arabide bera dute.

2. idatz-zatian, Nilsak kanona kudeatzean eta likidatzean gauzatzen dituen egintzen aurkako errekurtsuak arautzen dira. Gai hori arautu gabe zegoen, eta komeni zen argitzea. Biderik logikoen aukeratu da: horiei erreklamazio ekonomiko-administratiboan izaera ematea, eta, gainerako tri-

butu-egintzen modura, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboak ebatz ditzala.

3. idatz-zatian, 15.2 artikuluko hirugarren lerrokadako konponbidearen antzekoa jaso da: kudeaketako, likidazioko eta diru-bilketako egintzen aurkako errekurtsuetan, ur-hornitzaile diren entitateen araudia da aplikatuko dena.

Ur-hornitzaile diren entitateak toki entitateak direnez, errekurtsuak toki araudira egokituko dira.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-zerbitzuen zorroan sar ditzan emakume ezkongabe eta lesbianentzako ugalkortasun programak, haiek ama izateko daukaten eskubidea bermatuko dutenak.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko irailaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-zerbitzuen zorroan sar ditzan emakume ezkongabe eta lesbianentzako ugalkortasun programak, haiek ama izateko daukaten eskubidea bermatuko dutenak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun-zerbitzuen zorroan sar ditzan, beste erkidego batzuek eginen duten modu bertsuan, emakume ezkongabe edo/eta lesbianiei ere zuzendutako ugalkortasun programak, baldin eta ama izateko borondatea eta desioa adierazten badute, horretarako oinarri hartuta Lagundutako ugalketari buruzko Legeko 6.1. artikuluan xedatutakoa, ugalkortasun arazoak izan ala ez?"

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Sodenaren eta entitate finantzarioen artean "Europako Inbertsio Bankua" lerroaren esparruan sinatutako hitzarmenak.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko irailaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan Sodenaren eta entitate finantzarioen artean "Europako Inbertsio Bankua" lerroaren esparruan sinatutako hitzarmenak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sodenaren eta finantza-entitateen artean "Europako Inbertsio Bankua" lerroaren esparruan sinatutako hitzarmenak alda ditzan, halako moduan non Sodenak abal-emaile gisa sinatuko baitu enpresa bakoitzarekin sinatutako operazio bakoitzean, zuzenean bere gain hartuz operazioaren arriskuaren kasuko ehunekoak."

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen gaineko tasa.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko urriaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen gaineko tasa" lerroaren esparruan sinatutako hitzarmenak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak finantza-transakzioen gaineko tasaren egokitasuna berresten du, Europan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia eta berdintasun ezaren aurka borrokatzeko behar adina funts biltzeko tresna gisa, bai eta munduko finantza-sistemaren egonkortasunari laguntzeko tresna gisa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du tasa hori 2014ko urtarrilaren 1eko datarekin ezar dezan, Europar Batasuneko 11 herrialdek, Espainiak barne, onetsi zuten legez.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berma dezan tasa horren bidez bildutako funtsak bideratzen direla krisiak eragindako pobrezia eta berdintasun ezaren aurkako borrokara, proiektu horretan inplikaturako gizarte zibileko erakundeek betidanik eskatu duten moduan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erne egon dadin eta tasa Nafarroan aplikatzea negoziatuz, Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren barnean, eta lortutako funtsak 3. puntuan azaldutako helburuetara bidera daitezela.

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du zilegitasunez eraturako errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko irailaren 19an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen zuen zilegitasunez eraturako errepublikaren eta legez eraturako Espainiako, Euskadiko eta

Kataluniako gobernuen aurka Franco jeneralak 1936ko uztailean gidatutako altxamendu militar faxista, eta 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko irailaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan Espainiako Gobernuak prestaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko irailaren 19an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioa horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen zuen bat egin zezan Espainiako Gobernuak prestaturiko

2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin, eta 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko irailaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Esako mazelaren eta urtegiaren mugimenduari eta Nafarroako Gobernuko segurtasun-txostenari buruzkoa.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Esako mazelaren eta urtegiaren mugimenduari eta Nafarroako Gobernuko segurtasun-txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zeintzuk dira Esako urtegiari eta mazelaren mugimenduari buruz Nafarroako Gobernuak dituen azken datuak? Nafarroako Gobernuak prestatzen ari al da Zangozako Udalak eta Nafarroako Parlamentuak eskatutako segurtasun-txosten independentea?

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakitekoa zer jarrera hartuko duen Osasun Departamentuak koordainketaren aurrean.*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer jarrera har-

tuko duen Osasun Departamentuak koordainketaren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urriaren 10eko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer jarrera hartuko du koordainketaren aurrean? Zer neurri hartuko du?

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak ikusita Mediterránea de Catering enpresarekiko arazoek eta kexek oraindik ere badirautea.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak ikusita Mediterránea de Catering enpresarekiko arazoek eta kexek oraindik ere badirautea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Mediterránea de Catering enpresarekiko arazoek eta kexek oraindik ere badirautea, zer neurri ari da hartzen eta hartuko ditu Osasun Departamentuak?

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakitekoa zer aurrekontu bideratuko duen Nafarroako Gobernuak 2014an garapenerako lankidetzara.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer aurrekontu bideratuko duen Nafarroako Gobernuak 2014an garapenerako lankidetzara.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2013an, 5,5 milioi euro inguru bideratu dira aurrekontuan garapenerako lankidetzara, eta zenbateko horren barruan dago PFEZaren 0,7ko ekarpenei dagokien zenbatekoa.

• Nafarroako Gobernuak zer aurrekontu bideratu nahi du garapenerako lankidetzara 2014an?

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kontuen Ganberak eginiko fiskalizazio-txostena, Nafarroako Zerga Ogasunaren Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Planari buruzkoa (2008-2012).

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Nafarroako Zerga Ogasunaren Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Planari buruz (2008-2012) egindako fiskalizazio txostena, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kontuen Ganberak eginiko fiskalizazio-txostena, Nafarroako Zerga Ogasunaren Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Planari buruzkoa (2008-2012)

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Iruzuraren aurka borrokatzeko plana (11. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (14. or.).
- IV. Ondorioak eta aholku orokorrak (14. or.).

1 eranskina. Iruzuraren aurkako plana (19. or.).

Nafarroako Zerga Ogasuneko Zuzendari Kudeatzaileak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (22. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emaniko erantzuna (24. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera, Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Nafarroako Zerga Ogasunaren 2008-2012 Plana 2012. urterako fiskalizazio programan sartu da.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Landa-lana 2012ko abendutik 2013ko martxoa bitarteko hilabeteetan egin zen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Zerga Ogasuneko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzagaririk.

Txostenak hiru atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean labur azaltzen da zertan den Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Plana. Hirugarren atalean lanaren helburuak, norainokoa eta mugak erakusten dira, eta laugarrenean ondorioak eta aholku orokorrak aurkezten dira.

II. IRUZURAREN AURKA BORROKATZEKO PLANA

Iruzur fiskalaz mintzatzerakoan ohartarazi behar da ez dagoela gaiaren gaineko azterlan ofizialik, nahiz eta Espainian ezkutuko ekonomiari buruzko datuak bildu eta ikerketak egin izan diren, gehienbat ikuspuntu makroekonomikotik.

Azterlan horiek guztiak hurbilketatzat hartu behar dira, eta ez neurketa zehatz gisa.

Nafarroako ekonomiaren tamaina eta berezitasunak ikusirik, ezin liteke esan Estatu osorako egindako zenbatespenak beren horretan ekar daitzkeenik Nafarroara.

Bestalde, gogoan izan behar da azterketak normalean ezkutuko ekonomiari buruz egin ohi

direla, eta hori ezin da iruzur fiskalarekin nahasi; noski, ezkutuko ekonomiari legokiokeen tributazio-portzentajea litzateke iruzur fiskala.

Aurrekoagatik guztiagatik, ez da fidagarria inolako zifrarik ematea Nafarroako iruzurraren zenbatekoaz.

Nafarroako Gobernuak, 2008ko martxoan, Nafarroako Zerga Ogasunari eskatu zion iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plan bat egin zezala 2008-2012 aldirako. Planean neurri estrategikoak, operatiboak, antolamenduzkoak eta giza baliabideez zein materialez hornitzekoak jaso behar ziren.

Planak bazuen aurrekaria, 2003-2007 aldirako egindakoa, hain zuzen ere. Eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek, oro har, plana egiten parte hartu behar zuten.

Planean azaltzen denez, 2003-2007 urteetakoaren ildotik 532 milioi bildu ziren, delitu fiskalen zenbatekoa barne.

Helburu nagusia da zerga-betebeharren bete-tze maila hobetzea, eta hori bat dator Nafarroako Zerga Ogasunaren helburu estrategikoarekin.

Hainbat helburu, neurri, jomuga, adierazle eta aduradun ezarri dira, arlo hauetan banatuak:

Arloa	Neurrien kop.
Informazio eta ikerketa arloa	30
Beste eragile batzuekiko lankidetzaren arloa	19
Tributuen kontrolaren arloa	124
Betebeharrak borondatez betetzeko pizgarrien arloa	59
Arauen Garapen eta Fiskalitaterako Zerbitzuaren arloa	12
Informazio sistemen eta prozesuen arloa	20
Plangintzaren arloa	6
Antolaketaren arloa	6
Giza baliabideen arloa	13
Komunikazioaren arloa	8
Tributuen gaineko gizarte-hezkuntzaren arloa	6
Guztira	303

Ondoren antolaketa arloaren edukia aurkeztuko dugu, betetze portzentajea barne, plana errazago uler dadin.

Antolaketaren arloa						
Helburua	Neurria	Adierazlea	Jomuga	Arduraduna	Epea	Betetakoa (%)
Plangintza eta ikerketa indartzea, batik bat ikuskapenaren arloan	1. Ikuskapen unitateen espezializazioa	- Unitate bakoitzari esleitutako sektoreak. - Txosten sektorialak	- Unitate bakoitzari sektore jakinak esleitzea, beste jarduketa batzuetarako orokortasuna galdu gabe. - Arazoei, irizpideei eta ikuskatzeko jardunbide egokiei buruzko txostenak egitea sektore jakinetarako	TKZ TIZ IU TKA	2009 2010 2011 2012	75
	2. Ikerketa eta plangintza unitate bat sortzea Ikuskapen Zerbitzuaren baitan	Unitatearen sorrera	Unitatea sortzea	Kudeatzailatza TKZ TIZ	2009	100
Helburua	Neurria	Adierazlea	Jomuga	Arduraduna	Epea	
BEZaren itzulketen kontrolaren arloa indartzea	3. BEZaren itzulketen kontrola unitate batean integratzea.	Integrazioa egitea	- Unitate beretik kontrolatzea BEZaren itzulketa guztiak, enpresa handiei dagozkienak izan ezik - Irizpideak homogeneizatzea	Kudeatzailatza TKZ ZTEHZ BEZA	2009	100
	4. BEZaren itzulketen kontrolaren arloan giza baliabide gehiago jartzea	Langilez hornitzea	Kontrol lanetako plantillan lau langile gehiago jartzea, baliabideen berresleipena dela medio	Kudeatzailatza TKZ ZTEHZ	2009	100
	5. Irizpideak eta kontrolak homogeneizatzea	Irizpide eta kontrolei buruzko txostena egitea eta aplikatzea	Irizpide eta kontrolei buruzko txostena egitea eta aplikatzea	TKZ ZTEHZ EHA BEZA	2009	80
Helburua	Neurria	Adierazlea	Jomuga	Arduraduna	Epea	
PFEZa kudeatzeko eta berrikusteko arlo orokor bat sortzea	6. PFEZaren kudeaketa eta berrikuspina unitate bakarrean biltzeko aukera aztertzea, herritarrentzako zerbitzuaren hobekuntza, baliabideen berresleipena eta kontrol hobea lortze aldera.	Azterketa eta, egokia izanez gero, integrazioa egitea	- Herritarrentzako zerbitzuaren hobekuntza ebaluagarria - Irizpideak homogeneizatzea - Tributuen kontrola areagotzea atxikipenetan	Kudeatzailatza ZAZZ TKZ EKZ PFEZZ	2009 2010	100

Eranskinean planaren deskribapen luzeagoa egiten da.

Azken batean, esan dezakegu honako hau iruzurraren aurka borrokatzeko plana baino areago dela Nafarroako Zerga Ogasunaren plan estrategiko bat. Plan estrategiko horrek zerga gehiago biltzea du azken helburua, eta horretarako funtsezko zutabea informazioa lortzea da, zeina, prozesu

informatiko egokien ondoren, zerga-kudeaketaren zerbitzuan jarriko baita. Horregatik, neurrien ehuneko 57 "informazioa eta ikerketa," "beste eragile batzuekiko lankidetzatza" eta "tributuen kontrola" arlo-etakoak dira. Planean proposatzen diren neurrietarako adierazleen artean ez dago zerga-bilketa edo aitortzaile kopurua zenbat handitu den adierazten duenik.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua da ondorioak ateratzea Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Planaren kudeaketaz eta ezarritako helburuen betetze mailaz.

Horretarako, Nafarroako Zerga Ogasunak emandako fitxak aztertu dira. Haietan helburu bakoitzerako neurriak, adierazleak, jomugak, arduradunak eta epeak jaso dira. Planaren ebaluazioaren agiria ere eskuratu dugu, horretan azaltzen baita noraino gauzatu den neurri bakoitza. Hala-ber, egindako inkesta hauek eman dizkigute:

- Nafarroako Ogasuneko zergadunentzako laguntza-telefonoaren erabiltzaileen gogobetetasunari buruzkoa.
- Nafarroako Ogasuneko zerbitzuen erabileraz eta balorazioaz laguntzaileei egindako inkesta.
- Errenta kanpainako zergadunen gogobetetasuna neurtzeko inkesta.

Planak ez du zerga-bilketaren gehikuntzarekin zerikusia duen adierazlerik ezarri.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Nafarroako Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Planean proposatutako neurrien ezarpenaren norainokoa laginketaren bidez egiaztatu da.

IV. ONDORIOAK ETA AHOLKU OROKORRAK

Atal honetan aurkeztuko ditugu egindako lanetik atera ditugun ondorioak eta horien araberrako aholkuak.

1. Honako hau ez da iruzurraren aurkako plan bat zentzu hertsian, baizik eta zerbait zabalago eta konplexuagoa, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren plan estrategiko baten antza duena, horrela izendatu ez bada ere. Horregatik, ez da bere adierazleak zerga-bilketaren zifretan oinarritzen dituen plana.

2. Plana jendaurrean jarri zen, eta haren hamaika arloetarako fitxak ezarri dira, non helburuak, hartu beharreko neurriak, adierazleak, jomugak, betetzearen arduradunak eta betetzeko epeak jaso baitira. Ezarpenaren arduradunen kasuan, oro har, unitatea seinatzen da (ez pertsona jakinak), eta maiz hainbat unitatek partekatzen dute ardura, ezarri beharreko neurria guztiei eragiten dielako.

3. Urtero argitaratzen dira, ebazpen bidez, Zergen Kontrolerako Plana ardatzen duten irizpide orokorrak, Tributuei buruzko Lege Orokorra eta Ikuskapenari buruzko Erregelamenda betez. Hiru ataletan sailkatzen dira, Ikuskapena, Kudeaketa eta Diru-bilketa izenburuen pean. Atal bakoitzean "berariazko jarduketa ildoak" eta "lehentasunezko jarduketa eremuak" daude.

4. Laburbilduz, esan dezakegu, oro har, planak betetzen dituela bere gisakoei eskatu behar zaizkien betekizun nagusiak.

5. Zerga Ogasunak aurkeztutako ebaluazio-datuaren arabera, neurriak, arloz arlo, maila hauetaraino bete dira:

Arloa	Neurrien kop.	Betetakoaren portzentajea									
		100	90	80	75	70	60	50	25	0	Batez bestekoa
Informazioa eta ikerketa	30	17	1	2	1			1	3	5	72
Beste eragile batzuekiko lankidetzak	19	8	3		3			2	1	2	75
Tributuen kontrola	124	63	2	3	14			17	11	14	72
Borondatez betetzeko pizgarriak	59	49			4			3	1	2	91
Arauen Garapen eta Fiskalitaterako Zerbitzua	12	10			1					1	90
Informazio sistemak eta prozesuak	20	7		1	3		2	3	3	1	68
Plangintza	6	3			3						88
Antolaketa	6	4		1	1						93
Giza baliabideak	13	9						2	2		81
Komunikazioa	8	3			3			2			78
Tributuen gaineko gizarte-hezkuntza	6				1			2	1	2	33
Guztira	303	173	6	7	34		2	32	22	27	77

6. Laginketa egin dugu, betetze maila % 100ekoa izan duten 40 neurri eta % 0koa izan duten 27 neurri hartuta.

Laginketa horretatik atera da, oro har, neurrien ezarpen maila agirian adierazitakoa bera dela. Hala ere, hauxe erantsi behar dugu:

- Zenbaitetan, zer egin den adierazten da, baina ezin da egiaztatu horrek zer aldaketa ekarri duen aurreko urteekin konparatuta.

- Ezin da beti egiaztatu zer nolako emaitzak eman dituen ezarritako neurriak.

- Zenbaitetan neurria prestatu egin da, baina beste inguruabar batzuen mende egon da hura gauzatu ahal izatea, eta ez da ezarri. Adibidez, plantillarekin zerikusia duten neurriak aipa daitezke, edo zergak itzultzeko epeetan egungo krisi-egoerak izan duen eragina, edo zenbait jarduketak kanpoko agenteek egin beharra.

Ezarri gabeko neurriei dagokienez, ezarri ez izanaren zioak hurrengo taulan sailkatu ditugu:

Zioak	Kopurua
Aurrekontua	5
Beste laguntzaile batzuen esku dago	3
Ez da beharrezkotzat jo	12
Konplexutasuna	1
Bestelakoak	6
Guztira	27

Plana osatzen duten neurriek, nahiz eta arlo ezberdinetan banatuta egon, badute lotura elkarrekin. Horregatik, nekez esan daiteke neurri batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direnik. Hala ere, zalantzarik gabe, zerga-informazioa lortzea planaren zutabe nagusia da, tratamendu informatiko egokien bidez informazio hori tributuen kontrolerako sistemen esku jarriko baita azken helburua lortzeko, hots, zerga-bilketa handitzeko.

Tributuen gaineko gizarte-hezkuntzaren arloko neurriak dira gutxien bete direnak. Hori dela eta, nabarmendu behar da zerga-bilketari begira ziur aski arlo horrek duela eragin txikiena epe laburrera, baina eragin nabarmena izan dezakeela epe ertain edo luzera. Ondoko taulak erakusten du zenbate-raino gauzatu diren arlo horretako neurriak.

Tributuen gaineko gizarte-hezkuntzaren arloa						
Helburua	Neurria	Adierazlea	Jomuga	Arduraduna	Epea	Betetakoaren portzentajea
Hezkuntza sistema: balioetan heztea	1. Tributuen arloko gizarte-balioei buruzko hezkuntza ikasketa-programetan sar dadila proposatzea	Proposamena prestatzea eta aplikatzea	Proposamena prestatzea eta aplikatzea	Kudeatzailtza, AGFZ, Konts. Kab., HD	2009, 2010, 2011, 2012	25
	2. "On line" prestakuntza-programak diseinatu eta garatzea	Programak diseinatu eta garatzea	Programak diseinatu eta garatzea	Kudeatzailtza, AGFZ, Konts. Kab., HD	2009, 2010	0
	3. Prestatzaileentzako prestakuntza eta laguntza	Laguntza eta prestakuntza jarduketak	Laguntza eta prestakuntza jarduketak	Kudeatzailtza, AGFZ, Konts. Kab., HD	2009, 2010, 2011, 2012	0
	4. Ikasleei Ogasuna erakustea	Zabalkunderako jardunaldiak	Zabalkunderako jardunaldiak	Kudeatzailtza, AGFZ, Konts. Kab., HD	2009, 2010, 2011, 2012	50
Herritarrei prestakuntza eta informazioa ematea	5. Zergen funtzioari eta xedeari buruzko prestakuntza eta argibideak ematea	Egindako informazioak	Zabalkunderako kanpainak egitea	Kudeatzailtza, Konts. Kab.	2009, 2010, 2011, 2012	75
Nafarroako foru sistema fiskalari buruzko berariazko prestakuntza	6. Nafarroako foru araubideari buruzko zabalkunde eta hedapen ekintzak	Egindako ekintzak	Zabalkunderako ekintzak egitea: jardunaldiak, hitzaldiak, prentsako artikulak eta argitalpenen sustapena	Kudeatzailtza, AGFZ, Konts. Kab., HD	2009, 2010, 2011, 2012	50
	AGFZ Arauen Garapen eta Fiskalitaterako Zerbitzua					
	Konts. Kab. Kontseilariaren Kabinetea					
	HD Hezkuntza Departamentua					

7. Ogasunaren jarduketan (berrikuspenak, ikuskapenak eta abar) ondorioz zenbat diru bildu den azaltzen da ondoko taulan:

	2012			2011			2010			2009			2008		
	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	Jarduketen kop.	Zenbatekoa	
Ikuskapena															
Zergadunak	253			302			297		347			352			
Ikusketen aktak	1.072	38.602.028		1.182	32.192.549		1.266	52.581.287		1.807	51.534.753		2.119	40.620.434	
Delitu fiskalak	4	30.897.255		4	6.616.005		2	2.270.542		4	5.095.470		3	7.015.991	
Ikuskapena, guztira	1.076	69.499.283		1.186	38.808.554		1.268	54.851.829		1.811	56.630.223		2.122	47.636.425	
Kudeaketa															
Likidazioen kop.		Zenbatekoa		Likidazioen kop.	Zenbatekoa		Likidazioen kop.	Zenbatekoa		Likidazioen kop.	Zenbatekoa		Likidazioen kop.	Zenbatekoa	
BEZa	3.523	24.642.957		5.514	12.934.065		6.348	28.680.000		9.141	38.800.000		7.295	54.419.000	
PFEZa	7.464	7.167.261		9.582	6.759.967		7.749	10.860.000		5.285	9.300.000		5.836	9.330.000	
SZ	427	6.095.684		565	4.001.796		184	1.910.000		131	3.700.000		444	7.326.000	
Errekerimenduak		8.429.998			10.023.015			12.550.000			12.400.000				
Zehapen larriak	21.023	5.502.154		25.098	8.618.040		2.456	2.583.000		883	1.240.000		1.554	1.851.000	
Epez kanpoko aitopenen erreklarguak	4.506	2.019.802		4.826	2.658.948		5.430	2.054.000		8.554	6.039.000		9.036	2.464.000	
Bestelakoak	3.979	4.789.451		5.370	7.048.740		4.949	8.881.000		4.791	9.925.000		4.117	8.540.000	
Kudeaketa, guztira	42.313	58.647.507		50.955	52.044.572		27.116	67.518.000		28.785	81.404.000		28.282	83.930.000	
Diru-bilketa															
Ordainketa-gutunak		Zenbatekoa		Ordainketa-gutunak kop.	Zenbatekoa		Ordainketa-gutunak kop.	Zenbatekoa		Ordainketa-gutunak kop.	Zenbatekoa		Ordainketa-gutunak kop.	Zenbatekoa	
-	42.063	33.354.176		38.426	32.264.537		29.752	24.810.000		23.093	23.700.000		23.573	20.004.264	
Guztira															
Diru-bilketa likidoa 12/3 in	84.061	161.500.966		90.567	123.117.663		58.136	147.179.829		53.689	156.700.000		53.977	151.570.689	
Borroketan datuak / diru-bilk. likidoa (%)		2.978.589.825			3.147.660.000		2010. urtea	2.873.428.000		2009. urtea	3.041.576.000		2008. urtea	3.181.544.595	
		5,42		3,91	5,12		5,15	5,15		5,15			4,76		
Bildutakoa, guztira:		578.568.181													
Diru-bilketa likidoa, guztira:		12.244.208.955													
Portzentajea:		% 4,73													

Iturria: Nafarroako Zerga Ogasuna

Datuek erakusten dutenez, berrikuspen eta ikuskapen jardueri zor zaie ekitaldi horietako diru-sarreraren ehuneko 5, gutxi gorabehera. Azpimarratzekoa da delitu fiskalen zenbatekoak 2012an izan duen hazkundea.

Horren harira, esan beharra dago urteko zenbateko horiek Ogasunaren kudeaketa orokorrari dagozkiola eta ezin direla beti lotu planeko neurri zehatzekin. Ez da ahaztu behar, bestalde, X. urtean zerga-oinarri berriak azalerarazi dituen jarduketaren batek urte horretako datuetan eraginik izan dezan, hurrengo urteetan oinarri horiek zergadunen aitortutako sartu beharko direla.

8. Goiko taulako datuak kalkulatzeko, kontuan hartzen dira ikuskapen, kudeaketa eta zerga-bilketaren arloetako ekintza administratiboei zor zaizkien zenbatekoak. Bazter uzten dira zergadunen ekin-tzei (aitortutako, aitortu osagarriak, ordeko aitortutako) zor zaizkienak. Beraz, Administrazioaren jarduerari esker lortzen diren zenbatekoak kalkulatzeko irizpide murriztailea erabiltzen da.

Ildo horretan, ez dira planeko datuetan sartu Diru-sarrera Publikoak Handitzeko zenbait Tributuen ezartzen dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legearen babesean egindako aitortu ordezkoei edo osagarriari zor zaizkien zenbatekoak. Lege horrek xedatzen du, borondatezko erregularizazioak aldi baterako errazte aldera, ehune-

ko 90eko jaitsiera aplikatuko zaiela Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritakoaren aplikazioak dakartzan errekaruei, baldin eta epe kanpoko aitortutako, aitortu-likidazioak edo autolikidazioak aurkezten badira 2012ko ekainaren 14tik abenduaren 31ra bitarte; berandutza-interesek, berriz, ehuneko 20ko jaitsiera izanen dute.

Beraz, zerga-kuota ez da murrizten, eta egiaztapenak egiteko edo ikuskatze prozedura bat has-teko Zerga Administrazioaren deia jaso dutenek ezin dute murrizketarik aplikatu.

Horrez gain, diruzko isunak handitu egiten dira zergen arloko arau-hauste larriari ezarri beharreko zehapenetan; izan ere, ordaindu ez diren zenbatekoen ehuneko 180ra bitartekoak izan daitezke.

Bestalde, abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzei buruzkoak, ezartzen duenez, tributudunek Zerga Administrazioari informazioa eman behar diote atzerrian kokatutako era guztietako entitateen kapital soziala, funts berekiak edo ondarea adierazten duten titulu, aktibo erreal edo ordezkari-errealak, aseguru eta errentez, eta ondasun higiezinak.

Araudi horren ondorioz borondatezko erregularizazio prozesua gertatu da, eta emaitza hauek ekarri ditu:

	Aitortutako kopurua	Aitortutako kuota
PFEZa (pertsoneko fisikoen errentaren gaineko zerga)	771	5.721.808
Ondarearen gaineko zerga	132	3.505.607
BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga)	1.169	6.357.845
SZ (sozietateen gaineko zerga)	32	971.626
Oinordetzen gaineko zerga	47	5.849.115
OEEJDZ (o. e. eta egintza jur. dok. gaineko zerga)	634	780.637
Atxikiak	1.376	1.758.078
Zatikatzak	210	493.655
Alkoholaren gaineko zerga	2	21.719
Elektrizitatearen gaineko zerga	34	20.708
Aseguru primen gaineko zerga	258	1.634.138
EEEZ (ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga)	86	190.547
Guztira	4.751	27.305.483

Iturria: Nafarroako Zerga Ogasuna

Hau da, 4.751 aitortutakoen 27.305.483 euro eka- rri dituzte. BEZari, oinordetzen gaineko zergari eta PFEZari dagozkion zenbatekoak nabarmentzen dira, guztizkoaren bi heren baitira.

9. Egindako inkesta hauek kontuan hartuta:

- Nafarroako Ogasuneko zergadunentzako telefono bidezko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen gogobetetasuna neurtzeko 2010ean eta 2011n egindakoa.

- Nafarroako Ogasuneko zerbitzuen erabileraz eta balorazioaz laguntzaileei 2009an egindakoa.

- Errenta kanpainako zergadunen gogobetetasuna neurtzeko 2010ean eta 2011n egindakoa.

Ondorioztatzen da, oro har, Ogasuneko zerbitzuek nahikoa gogobetetzen dituztela inkestatuak. Hobetu beharreko bi arlo aipatzen dira: harremanetan jartzeko erraztasuna, eta kontsultak bizkor ebaztea.

Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Planari buruzko ondorio horiez gainera, eta txostenaren osagarri gisa, komeni da gogora ekartzea zergen bidezko diru-sarreretan eragin nabarmena dutela legezkoak izanik ere Ogasunari dirua biltzeko ahalmena murrizten dioten neurri guztiek. Horien artean aipa ditzakegu era guztietako kenkariak, amortizazio azkartuak, enpresen sustapenerako sozietateak eta abarrekoak. Hitz batez, zerga-onura deitzen zaien horiek. Beste txosten batzuetan adierazi izan dugun bezala, ezarpenaren ondoren azterketa egin behar litzateke zerga-onurak ekonomian sortu dituzten ondorioez eta haien ezarpenarako jarritako balia bideen erabileraz.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Ahal dela, planeko neurrietan adieraztea neurriok zer aldaketa ekarri duten aurreko ekitaldietan egindakoaren aldean. Horrela egiaztatu ahal izanen da lehengo egoerari eusteko neurriak diren (halakoak ere beharrezkoak izaten dira) edo lehengo egoera hobetzekoak.*

- *Neurriak gauzatzeko ardura nork duen ahalik eta gehien zehaztea, pertsonak aipatuz, unitate arduradunen ordez.*

- *Ganbera honen beste txosten batzuetan jada esan dugun moduan, aztertzea ea zerga-onuren bitartez, zeinen aplikazioak diru-bilketa teorikoa murrizten baitu, haiek onetsi zirenean espero ziren emaitzak lortzen diren ala ez. Horri dagokionez, Nafarroako Zerga Ogasunak uste du berak datuak eman behar dituela, baina sustatu nahi den politikaren ardura duen departamentuak egin behar duela balorazioa.*

- *Nahiz eta eremu honetan Foru Komunitateak ahalmen mugatua izan, zerga-paradisua deitutakoak deuseztatzea aurrerapen garrantzitsua izanen litzateke iruzur fiskalaren aurkako borrokan. Horregatik, xede hori lortzen lagunduko duen edozein neurriren ezarpena baloratu behar da.*

Txosten hau amaitzeko, planaren eta, oro har, Zerga Ogasunaren jardunaren oinarria azpimarratu nahi dugu: zerga-informazio garrantzitsua lortzea, betebeharrak fiskalak betetzeko akuilu izanen dena zergadunentzat.

Iruzuraren aurkako borroka, gainera, Ogasunarekikoak betetzen dituzten zergadun guztienganao gizalegeak agintzen du. Horren harira, adierazgarria da 2012. urteko delitu fiskalen zenbatekoa.

Ez da ahaztu behar, zehaztu gabeko kontzeptua izan arren, betebeharrak fiskalak hobeki betetzeko lagungarria dela gizarteak sumatzea zerga-sistema "bidezkoa" dela eta sektore publikoak, are gehiago egungoa bezalako krisialdi ekonomiko larrietan, gastu publikoaren bitartez jende gehienaren eskariei erantzuten diela.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. IRUZURRAREN AURKAKO PLANA

1. Alderdi orokorrak

Nafarroako Gobernuak, 2008ko martxoaren 3ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari eskatu zion iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plan bat egin zezala 2008-2012 aldirako. Planean neurri estrategikoak, operatiboak, antolamenduzkoak eta giza baliabideez zein materialez hornitzekoak jaso behar ziren.

Gainera, eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek, oro har, plan hori egiten parte hartu behar zuten, eta arreta berezia jarri behar zen kontribuzio komunaren, elkartasunaren eta gure zerga-sistema bereziaren balioak erakusteko hezkuntzan.

Prozesu horren ondoren, plana Nafarroako Gobernuaren irizpenpean jarri zen 2008ko azaroaren 3an.

Haren kudeaketarako Zuzendaritza Batzordea sortu zen, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendariak osatua, eta prestatze lanei ekin zitzaion: Ogasuneko zerbitzu guztiak lanean jarri ziren beste zerga-administrazio batzuen planen azterketan, eta beste erakunde batzuen dokumentuen azterketak eta elkarrizketak egin ziren, zergen arloko gaiei buruzkoak.

Gizarte-eragileek planean parte har zezaten, zirriborroa bidali zitzaion hainbat erakunderi, eta Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez edonork proposamenak aurkeztu ahal izateko epea ezarri zen. 25 erakunde edo partikularrek aurkeztu zituzten alegazioak edo proposamenak.

Plan honen aurrekaria izan zen 2003-2007 aldirako egindakoa.

Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua dio herritar guztiak gastu publikoari aurre egiten lagundu behar dutela, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidetaren arabera; horretarako zerga-sistema zuzena ezarriko da, justizia-, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarritua, eta sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izanen.

Zerga-sistema orok ekarpena egiteko betebeharra ezartzen du, baina ez dute herritar guztiak betetzen. Iruzur fiskala gizarte guztien gaitza da. Ekonomiaren funtzionamendurako eta gizarte-kohesiorako ondorio kaltegarriak sortzen ditu:

a) Betebeharra betetzen dutenei kalte egiten die, iruzurgileen mesederako, eta elkartasunik ezaren adierazpen gordina da.

b) Zerbitzu publikoen maila eta kalitatea behar dituztenak, zuzenean eragiten diolako haien finantzaketari.

c) Jarduera ekonomikoa eta lehia zintzoa oztopatzen ditu, enpresen arteko bidegabekeriak sortuz.

Beraz, iruzur fiskalaren prebentzioa eta pertsekuzioa eta zerga-eginbeharren betetze mailaren hobekuntza gizartearen premia eta eskaria dira eta botere publikoen ezinbesteko lana, zuzenean eragiten dietelako gure gizartearen funtsei.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak, lan horren garrantziaz jabeturik, Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Plana sustatu du eta hura gauzatzeko konpromisoa hartu du. Eta, iruzur fiskala guztien arazoa denez, plana taxutzen parte hartzera gonbidatzen du gizartea, ideiak ematera, laguntzera, eta bereziki atal bat eskaintzen dio tributuaren gaineko gizarte-hezkuntzari.

Eskema bat ezar genezake non, alde batetik, zerga-eginbeharren aurrean zergadunak duen jarrera definituko baitugu, eta bestetik, gure iritziz nola erantzun behar duen Zerga Administrazioak balizko ez-betetzeak zuzentzeko.

Lehenbiziko mailan daude zergadun gehien-gehienak, arau fiskala borondatez betetzen dutenak, alegia, beren zergak ordaintzen dituztenak. Kasu horretan, Ogasunaren erantzuna izan behar da betetze hori ahalik gehien erraztea, zerbitzu eta informazio sortarik zabalena eskainiz, zergadunak modu errazean bete ditzan bere eginbeharrik.

Bigarren mailan leudeke beren eginbeharrik bete ohi dituzten arren, noizbehinka, batez ere arauak ez jakiteagatik, akatsak edo arau-hausteak egiten dituztenak.

Talde horrentzat, Ogasuneko zerbitzuek burubeltarri aritu behar dute irizpideei buruzko informazioa eskaintzen, zalantzak argitzen, laguntza-programak bideratzen, betebeharren eta horiek betetzeko moduaren ezagutza errazte aldera. Egi-aztapen jarduketa sinpleak ere egin behar dituzte horrelako kasuak detektatzeko.

Jada hirugarren mailan, gezurra esanez edo datuak ezkatatuz zuzeneko mozkin ekonomikoa bilatzen duten zergadunak ditugu; agian ez dute behar adinako kontrolik sumatzen eta, horregatik, harrapatuak izateko arriskua gutxiago baloratzen dute berehalako onura ekonomikoa baino.

Horrelakoekin Ogasunak honela jokatu behar du:

- Prebentzio eta kontrol jarduketak egin behar ditu, estentsiboak eta intentsiboak.

- Ez-betetzeak zuzendu eta zigortu behar ditu.

• Arlo honetan egindako hobekuntzen eta aurrerapenen berri zabaldu; hartara, kontrol zorrotz eta eraginkorra egiten dela eta horrelako jokabideak zigortzen direla jakiteak iruzurrerako asmoa ken diezaieke gainerako zergadunei. Ildo horretatik, iruzurraren aurkako plan baten berri zabaltzea bera ere talde horrentzako disuasio neurria da.

Azkenik, beste pertsona batzuek iruzurrezko portaera oso larriak izaten dituzte, batzuetan delituzkoak, edo areago, beste delitu batzuekin lotuak.

Halakoei Ogasunak jazarpen zorrotz eta kupidagabea eta delitu fiskalaren tresna besterik ez die gordetzen.

Nahiz eta zergadunaren lau profil horiek ñabar-dura asko izan ditzaketen, sailkapen horrek talde bakoitzaren ezaugarri ohikoenak bereizten ditu, eta, batik bat, Ogasunari jarrera eta neurri ezberdinak hartzea ahalbidetzen dio, aurrean duen arazo zehatzaren arabera. Batzuetan ekintzek zerikusirik gehiago izaten dute zergadunarentzako zerbitzuekin eta arretarekin, hots, betebeharrak erraztearekin. Beste batzuetan kontrola, egiaztapena edo ikerketa izanen dute xede nagusia. Baina proposatuko diren neurri guztiek helburu bakarra eta argia izanen dute: zerga-betebeharren betetze maila hobetzea. Eta, beraz, haiek guztiek dute lekua plan honetan.

2. Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Planaren helburuak

Iruzurraren aurkako planak helburu nagusia du zerga-betebeharrak gehiago bete daitezen lortzea, bereziki ez-betetze gehienak egiten diren esparruetan. Bat dator, beraz, Nafarroako Zerga Ogasunaren helburu estrategikoarekin, eta bi ardatzen inguruan mamitzen da.

- Alde batetik, eraginkortasuna hobetu nahi du iruzurraren prebentzioan eta ez-betetzeen pertsekuzioan, tributuen kontrola areagotuz eta indartuz.

- Bestetik, zerga-betebeharrak borondatez betetzeko pizgarriak eman nahi ditu, zergadunentzako laguntza eta zerbitzuak hobetuz eta garatuz.

Azken batean, kontrola eta zerbitzua uztartu behar dira betebeharrak bete daitezen lortzeko, bi ekintzen arteko oreka bilatuz.

Bi alderdien tratamenduak, aurkezten dena bezalako plan batean, justifikazio argia du: ezin dira ahalegin guztiak jarri zigor neurrietan soilik, egiaztatu delako prebentzio neurriak eta zergadunentzako laguntza oso eraginkorrak direla zerga-eginbeharren betetzea hobetzeko. Horregatik,

ekintza mota horiek guztiek beren lekua izan behar dute plan honetan, modu orekatu eta eraginkorrean.

Aurkezten den planaren helburua da, beraz, zerga-betebeharrak gehiago bete daitezen lortzea, iruzur fiskalari atzera eraginez, askotariko neurriak direla medio:

- Eginbeharrek borondatez bete daitezen sustatzeko eta pizgarriak emateko neurriak.

- Aurrea hartzeko neurriak.

- Ez-betetzeak kontrolatu eta zigortzeko neurriak.

- Gizartea sentiberatzeko eta kontribuzio komunaren balioak indartzeko neurriak.

3. Printzipioak

Hona hemen iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plan hau gidatzen duten printzipioak:

- Estrategikoa

Plana jarduketa-multzo gisa aurkezten da, eta jarduketa horiek bat datoz bete-betean Nafarroako Zerga Ogasunaren estrategiarekin, haren eginkizun eta xedeetara jotzen dutelako: Nafarroako zerga-sistema aplikatzera, zerga-eginbeharren betetze maila hobetuz, borondatez betetzeko pizgarriak eta iruzurraren kontrola, prebentzioa eta pertsekuzioa direla bide.

Horretarako, planaren beharra dago, neurrien multzo ordenatu eta sistematiko gisa, jardun aurretik edo hura burutu aurretik.

- Integrala

Planak Ogasuneko arlo organiko guztiei eragiten die, eta arlo funtzional guztiak hartzen ditu bere baitan. Zergadunentzako laguntzarekin eta tributuen kontrolarekin zerikusia duten zerbitzuak biltzen ditu, araugintza zerbitzuez eta informazio sistemez gainera.

Antolaketarekin, prozesuekin, sistemekin eta pertsonekin zerikusia duten neurriak ere baditu.

Eta hori guztia egoki lerrokatuta dago aurrean definitutako estrategiarekin.

Beraz, ogasun oro egunez egun iruzurraren aurka borrokan ari delako ideia giltzarriari eusten dio. Hartara, erakunde osoaren inplikazioa eta, bereziki, plana taxutzeko eta gauzatzeko konpromisoa eskatzen du.

- Eragilea

Planak funtsean eragilea izan nahi du. Beste plan batzuek gehiago landu dituzte iruzurraren

alderdi psikologiko edo soziologikoak. Honako honetan, aurrekoen garrantzia gutxietsi gabe, neurri operatibo zehatzen multzoa eratu nahi da, berehala burutu ahal izanen diren neurriak (batzuk dagoeneko gauzatzen hasita daude) eta epe labur edo ertainean baloratzeko moduko emaitzak ekarriko dituztenak.

- Helburuen arabera plangintza

Plangintzaren egiturak berekin ekarriko du ongi zehaztea burutu behar diren neurriak, neurrioi ekiteko epeak, lortu nahi diren jomugak eta ekintza bakoitzaren arduradunak. Horrek neurriak gauzatzeko lagunduko du eta haien eboluzioaren eta betetze mailaren barneko zein kanpoko kontrola ahalbidetuko.

- Mailaz mailakoa eta malgua

Planak bost urteko epea du, 2008tik 2012ra bitartekoa, eta urte horietan zehar ezartzen joanen da. Bitarte horretan gerta liteke jatorrizko ingurubarrak aldatzea, iruzurgune berriak agertzea edota planaren baldintzaren bat aldatzea. Horregatik, planak gai izan behar du iruzurraren unean uneko errealitateari egokitzeko.

- Parte hartzekoa

Iruzurraren aurkako borrokan gizarte osoak parte hartu behar duelakoan, guztion arazoa baita, plana prestatzean entzunaldi publikoaren fasea egin nahi da. Fase horretan eragile ekonomiko, politiko eta sozialek eta herritar guztiek plana eza-gutu eta egokitzat jotzen dituzten ideiak edo iradokizunak eskaini ahal izanen dituzte.

- Ebaluagarria eta autofinantzatua

Helburu eta ekintzen zehaztapenak bidea eman behar du lortutako emaitzak, kasurik gehienetan, erabat ebaluagarriak izan daitezen eta, aginte-koadro baten arabera, aldi behin transmititu ahal izan daitezen bai kanporantz (gizarte osoa, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentua), bai erakundearen baitarantz (Nafarroako Zerga Ogasuna).

Haren exekuzioan lortzen diren emaitzek, gainera, aise ahalbidetu behar dute proposatzen diren neurrien finantzaketa.

- Balioei buruzko hezkuntza, leku nagusian

Planak badu tributuen arloko gizarte-hezkuntzarekin zerikusia duten neurrietarako kapitulu berriak bat. Azpimarratu nahi da kontribuzio komunaren eta elkartasunaren balioei buruzko prestakuntzak garrantzi handia duela portaera antisozial eta iruzurrezkoak urritzeko, nahiz eta

haren emaitzak ikusi arteko epe luzeagoa izan daitekeen.

4. Jarduketa arloak

Proposatutako neurri gehienak elkarrekin loturik daude, eta zenbaitetan zaila da haietako batzuk arlo bakar batean sailkatzea, hainbat arlotan parte hartzen dutelako. Dena den, azpimarratu nahi izan diren helburuen arabera zehaztutako arloetan sailkatzeko ahalegina egin da.

Hauek dira arloak:

- Informazioa eta ikerketa.
- Beste eragile batzuekiko lankidetzak.
- Tributuen kontrola.
- Borondatez betetzeko pizgarriak.
- Araudia.
- Prozesuak eta sistemak.
- Plangintza.
- Antolaketa.
- Giza baliabideak.
- Komunikazioa eta gardentasuna.
- Hezkuntza eta kontzientzia soziala.

Planak berak azaltzen du zein osagai bildu behar dituen ezinbestez planifikazio batek, erakundeak bere eginkizuna bete ahal izan dezan. Hala:

"Bete beharreko helburuak ordenaz definitzea, lortu beharreko jomuga gisa zehaztea, denboramugak jartzea eta betetzearen arduradunak esleitzea ezinbesteko elementuak dira entitate batek bere gain hartu duen eginkizuna burutu ahal izan dezan".

Gainera, hau eransten du:

"Planek ondoko parametroak eduki beharko dituzte:

- Helburuak
- Neurriak
- Jomugak
- Adierazleak
- Erantzuleak

Planen exekuzioa aldi behin ebaluatu behar da. Baloratzeko eta neurtzeko sistemak sinplifikaziora jo eta kalitatea haztatu beharko dute.

Plangintzak parte hartzekoa izan beharko du.

Aginte-koadroko tresna informatiko batek eutsi beharko dio sistema osoari".

Planaren tamainaz jabetu ahal izan gaitezen, jarraian azalduko dugu, arloka, hura zenbat neurritan gauzaten den. Neurriok helburuei erantzuten diete eta badituzte zeinek bere adierazleak eta arduradunak:

Arloa	Neurrien kop.
Informazioa eta ikerketa	30
Beste eragile batzuekiko lankidetzak	19
Tributuen kontrola	124
Borondatez betetzeko pizgarriak	59
Arauen Garapen eta Fiskalitaterako Zerbitzua	12
Informazio sistemak eta prozesuak	20
Plangintza	6
Antolaketa	6
Giza baliabideak	13
Komunikazioa	8
Tributuen gaineko gizarte-hezkuntza	6
Guztira	303

NAFARROAKO ZERGA OGASUNEN KUDEATZAILEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOAK

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2013ko uztailaren 17an, Zerga Iruzurraren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Plana fiskalizatzen duen behin-behineko txostena igorri zion Nafarroako Zerga Ogasunari, aztertzeko eta alegazioak egin ahal izateko.

Txostena, ondorioak eta kontu-ikuskatzaileak proposatutako aholkuak irakurritakoan, Nafarroako Zerga Ogasunak hau adierazi nahi du:

1.- Iruzur fiskala neurtzeko azterlanen existentziak

Arauz kanpoko ekonomia oro har, ezkutuko ekonomia bereziki, eta horren korolariora den iruzur fiskala, hirurak dira jokoera guztiz bidegabeak eta elkartasunaren kontrakoak. Langileen eskubideak hondatzen dituzte, eta bidegabeko lehia maltzurra jasanarazten diete beren legezko eginbeharrak betetzen dituzten enpresa, ekintzaile eta langile autonomoei. Iruzurrak ondare-kaltea egiten die Estatua osatzen duten administrazio publikoen diru-sarrerei, eta zergadun iruzurgileek, errentaren zati bat ezkututzen dutenez, maiz jasotzen dituzte zor ez zaizkien gizarte-onurak, diru-laguntzak, sorospenak eta laguntzak, bestela jaso ezinen litzuketean eskubideen hartzekodun bilakatuz.

Arazo honen garrantziaren inguruko eztabaida indarrez berpiztu da, batik bat gure herrialdean,

azken urteetan bizi izan dugun eta oraindik bukatu ez den krisi ekonomiko sakonaren ondorioz.

Nafarroako Zerga Ogasunak ez du bere kasa azterlanik egin Nafarroako Foru Komunitateko iruzur fiskala neurtzeko.

Zuzeneko Tributuen, Zeharkako Tributuen eta Tributuo Ikuskapenerako zerbitzuek egiten dituzten egiaztapen laburtuak eta ikuskapenak direla bide, informazioa biltzen da sektorez sektore eta zergaz zerga, eta horrela hurbilketak egin daitezke, sektore jakin batean diharduten edo zerga-onura jakinak aplikatzen dituzten zergadunek beren eginbehar fiskalak behar bezala noraino betetzen dituzten ikusteko. Azterketa horiek ahalbidetzen dute Administrazioaren ekintza programatzea urteroko kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketa planak diseinatzeke eta, azken buruan, erregularizaziorako proposamenak egiteko.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributuo-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da Nafarroako Gobernuak ikerlan bat egitea, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaaren tamainari buruz, desagregazioa eginez lurraldearen, sektorearen eta zergen arabera.

Gaian adituak diren profesionaleri ikerketa hori egiteko eskatu zaie, eta lan konplexua dela aitortu dute, aztergaiaren heterogeneotasunagatik. Haien iritziz, ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala ez dira beti berdin banatzen, ez denboran, ez espazioan, ez jarduera-sektoreen artean. Autonomia erkidego batetik bestera, are probintziatik probintziara, asko

alda daitekeen fenomeno da . Egoeraren azterketan metodo estatistiko-ekonometrikoak erabiliko dira autonomia erkidegoen araberrako denborazko serieen gainean, Espainia osorako azterlan baten atal gisa. Horrela ikertu ahal izanen da aztertu nahi den aldagaiak nolako bilakaera duen denboran zehar, eta Nafarroa dagokion tokian kokatu ahal izanen da ranking nazionalean. Aurreikusita dago ikerketa 2014rako amaitzea.

Nafarroako Zerga Ogasunak uste du ikerketa egiteak gizartearen gaitz hau hobeki ulertzen lagunduko duela eta erreferentzia-esparrua ezartzeko balio izanen duela; hortik abiatu baloratu ahal izanen dira urteetan zehar Administrazioak eremu honetan egin dituen jarduketaren eraginkortasuna eta eragimena. Baina jabeturik dago, halaber, emaitzaren fidagarritasuna gorabehera, iruzur fiskalaren neurketak ez duela berez arazoa konponduko.

Erakunde autonomoaren egitekoa da, haren estatutuek diotenez, "tributuen kudeaketa eta bilketa zuzen eta eraginkorra lortzea. Izan ere, azken helburua zerga arloko araudia orokorrean zehatz-mehatz betetzea da, alde batera utzi gabe zergadunaren segurtasun juridikoa, eta araudi horrek sorrarazten duen zeharkako presio fiskala gutxituz". Beraz, iruzur fiskalaren tamaina neurtu edo ez neurtu, arazoa hortxe dago eta Nafarroako Ogasunaren ardura da berari aurre egitea bai ekonomiaren garai oparoetan bai krisialdian.

2.- Txosteneko zenbait ondorio direla-eta: planaren kalifikazioa.

Kontu-ikuskatzaileak iritzi dio ez dela iruzurra-aren aurka borrokatzeko plana, zerbait zabalago eta konplexuagoa baino, plan estrategiko baten antzekoa.

Nafarroako Zerga Ogasunak ez dio eragozpenik jartzen kalifikazio horri, hutsala izan daitekeela uste duen arren .

Herritarrek iruzur fiskalaren aurkako borrokaren emaitza zehatzak sumatzen dituzte: instruitutako delitu fiskalak, ikuskapenen kopurua eta Ikuskapen Zerbitzuaren bitartez Zerga Administrazioak azaleratzen dituen dirutzak. Zerga Administrazioaren lanaren zati guztiz garrantzitsu horren ondoan badira beste ekintza batzuk, Nafarroako Zerga Ogasunaren ustez iruzur fiskalaren aurkako borrokaren parte ere badirenak, hala prebentzioaren aldetik nola kontrol-lanaren aldetik; adibidez, PFE-Zaren autolikidaziorako proposamenak bidaltzea zergadunen helbideetara, Administrazioaren eta enpresen arteko harremanak erraztuko dituzten laguntzaile sozialen sarea ehuntzea, likidatu behar diren zorren kobrantza bermatuko duten kautelaz-

ko neurriak hartzea, edo kenkaria izan duten gas- tuak egiaztatzea. Esan liteke alde batetik iruzur- rrezko jardueraren kontzeptu murriztaile bat dugu- la, herritarrek darabilten kontzeptua, eta bestetik kontzeptu zabalago bat, jokabide okerrak eragotzi edo zuzentzea helburu duena.

Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Plana, gure inguruko beste administrazio batzuetan bezala, bigarren kontzeptu horretatik abiatu da, baina ahaztu gabe lehenbiziko kontzep- tuak definitzen dituela jokabide gaiztoenak eta, beraz, leku nabarmena izan behar duela, Ganbe- raren txostenean azpimarratzen den bezala, neu- rrien ia % 60 hartzerainokoa. Horrekin batera, tri- butuen kontrolerako urteroko planifikazioa egiten da kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketa organo- entzat.

Horregatik, nahiz eta plan estrategikotzat kalifi- katu, zalantzarik gabe hauxe da haren xedea: iru- zur fiskalari aurrea hartzea eta hura zuzentzea, diru gehiago biltzeko.

Adierazleak diru-bilketaren zifretan

Nafarroako Zerga Ogasunak neurri bakoitzera- ko adierazle egokiena erabili du, garatu beharreko ekintzaren neurketara edo exekuzio gradura ongi- en moldatzen zena .

Izan ere, haietako batzuk ezin dira diru-bilketa- ren zifren bidez zehaztu eta nahitaez hautatu behar da bestelako parametroren bat (gogobetetze maila, jarduketaren kopurua...). Diru-bilketaren zen- batekoa adierazle egokia izan zitekeen haietan, aplikatu izanaren esperientzia falta zen, horren ahalmena jakiteko. 2008-2012 aldirako plana buka- tutakoan, mota horretako adierazleak kontuan har- tuko dira hurrengo planean.

Ezarritako neurrien emaitzaren egiaztatpena

Adierazi den bezala, planak neurrien sistema koherente bat aurkezten du, eta neurri horiek elka- rrekin lotuta daude; beraz, zenbaitetan zaila izan daiteke haren guztizko emaitza neurtzea, hainbat arlori eragiten dielako. Kasu gehienetan, ordea, adierazleak emaitza neurtzea ahalbidetu du.

Tributuen gaineko gizarte-hezkuntza

Aurrekontu murrizketen ondorioz, neurri horiek geroratu behar izan dira.

Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko api- rilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren bitartez Nafarroako Gober- nuak hezkuntza-, informazio- eta komunikazio- estrategia bat garatuko du, herritarrak kontzientzi- atu eta erantzukizunean eta tributuo-betebeharren betetzean hezteko. Neurri horiek Iruzur Fiskalaren

Aurka Borrokatzeko 2013-2017 Planean jasoko dira.

3.- Txosteneko aholkuak direla-eta.

Nafarroako Zerga Ogasunak onartu egiten ditu Kontuen Ganberak proposatutako aholkuak, eta hurrengo planean kontuan hartuko ditu ondokoak:

– aurreko ekitaldietan egindakoaren aldean neurriek ekarritakoaren zenbatekoa neurtzea,

– neurri bakoitza betetzeko arduradun zehatzak izendatzea,

– gaiaren arabera eskumena duten departamentuekin koordinatzea, onura fiskalen ondorioz espero diren emaitzak kontrolatzeko, eta, ahal duten neurrian, paradisu fiskalak ezabatzeko neurri egokiak sustatzeko.

Azkenik, Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Ganberari eskerrak eman nahi dizkio Iruzur Fiska-

laren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Planari buruz egindako kontu-ikuskapenagatik eta bere txostenean jasotako ohar eta aholkuengatik.

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea: Idoia Nieves Nuin

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

“Iruzuraren Aurka Borrokatzeko 2008-2012 Plana” dela-eta egin den behin-behineko txostenari buruz Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak egindako iruzkinak txosten horretan adierazitakoen azalpen edo zabalpen bat dira eta, horrenbestez, ez dute bera aldatzen.

Horregatik, erabaki dugu haiek txostenari gehitzea eta txostena behin betikotzat jotzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas